




Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

**GURE AITA**

**B SAIOA**

**GURASOENTZAT PARROKIAN**

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**"IRAKATS  
IEZAGUZU OTOITZ EGITEN"  
Lk 11, 1**

## **1. Helburua**

- Jainkoa, maite gaituen eta Berarekin hartu-emanaren izateko bidea erakusten digun Aita bezala ikusi, Jesusen bidez.

## **2. Helburu bereziak**

- Jesusek Jainko Aitarekin duen konfiantzazko hartu-eman estuaz jabetu.
- Otoitzak Jesusentzat duen garrantzia ezagutu.
- Aitagurearekin otoitz egiten ikasi.
- Jainkoa denok maitatu eta zaindu egiten gaituen Aita dela jakin eta horren aurrean esker oneko agertu.
- Gure Aita kristau guztiok batzen gaituen otoitza dela jakin.

## **3. Saioak**

- B saioa, gurasoentzat parrokan.

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# B SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



## Motibazioa

- Otoitzaren esanahian eta, zehazki, Aitagurearenean sakondu.



## Azpimarrak

- Jainkoak hurbil egon nahi du eta Berarekin hartu-emana izateko bidea eskaintzen digu.
- Otoitzak dena lotzen du eta pertsona guztiok lotzen gaitu.



## Idea nagusiak

- Jainkoa, lehenik eta behin, guztion Aita-Ama da eta, ondorioz gu anai-arrebak gara.
- Jainkoa jaramonik egin gabe geratzen ez den Aita da, jakin-mina du, gure ilusio, beldur, itxaropenen... berri izan nahi du, bizitzako gorabeheretan gure ondoan izan nahi du.



## Ezinbesteko lagungarriak

- I. kartela. "Jainkoaren WiFi". (I. eranskina).
- Biblia. "Tu primera Biblia", Edebe. 49. zenb., 392-393 or. Edo Lk 11, 1-4.
- Koloretako post-it/paperak eta boligrafoa.
- Komenigarritzat joz gero, kartela Gure Aita otoitzarekin.
- Musika eta kandela.

Denbora hartu saioaren dinamika ulertzeko eta, aurretik, behar izango dugun guztia prestatzeko.



## Saiorako gida

### Laguntzailearentzat....

Gelaren erdian (ondo ikusteko moduan), "Jainko Aitaren WiFi" posterra jarriko dugu. Lau unetan banatuko dugu saioa:

1. unea: agurra eta aurkezpena (5 minutu). 1. urratsa.
2. unea: gaiaren azalpena (10 minutu). 2-3 urratsak.
3. unea: jarduera. Bideo-abestia (25 minutu). 4-5 urratsak.
4. unea: adierazpena eta laburpena (15 minutu). 6-7 urratsak.



### Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak, hasieran, agurtu eta ongi etorria adieraziko die Gabon aldiaren ostean.



1. Urratsa. Saioaren helburua otoitzaren adieran eta, zehazki, Gure Aitaren adieran sakontzea dela azalduko du laguntzaileak.

## **F Bigarren unea. Gaiaren azalpena**



2. Urratsa. Laguntzaileak Jainko Aitaren irudia, konexioa eta pasahitza jasotzen dituen kartela erakutsiko dio taldeari. (I. Eranskina)

- Irudiari begiratu eta pentsatzeko eskatzeaz batera, galdera hau egingo die: Zerez osatuta dago kartela?



3. Urratsa. Laguntzaileak "Tu primera Biblia" (Edebe, 49. zenb. 392-393 or.) edo Lk 11, 1-4 irakurriko du ozen.

## **Hirugarren unea. "Otoitz esperientzia" jarduera**



4. Urratsa. "Otoitz esperientzia".

Laguntzaileak paper/post-it eta errotuladore bana (koloretakoak) emango die, bertan galdera hauen erantzunak idatz ditzaten:

- Noiz egin duzu otoitz azken aldiz?
- Txikitan, zein otoitz zenuen gustukoen? Otoitz egiten zenuen? Nork irakatsi zizun otoitz egiten? Norekin egiten zenuen otoitz? Noiz?
- Zergatik egiten duzu otoitz? Gustuko duzu otoitz egitea? Norekin? Noiz?
- Aita, ama zara eta Jainkoari Aita esaten diogu... Gure Aita otoitza esanguratsuago bihurtu da zuretzat? Errezatu duzu noizbait ozen zure seme-alabarekin? Noiz? Irakatsi diozu otoitzen bat?

Pare bat minutu utzi, idatzi dutena ahopean irakur dezaten. Ondoren, adieraz dezatela taldean haurtzaroko zein otoitzekin "konektatu" duten.



5. Urratsa. "Gure Aita otoitza"

- "Gure Aita otoitza" idazkia (II. eranskina) bi korutara irakurtzen laguntzeko eskatuko dio laguntzaileak partaideetako bati.
- Irakurri ondoren, laguntzaileak galdera hauek egingo ditu:
  - Zer adierazi dizue idazkiak?
  - Zerekin geratzen naiz?
- Idatzi orri batean bilera honetatik daramazuna.

## **Laugarren unea: Bilketa eta laburpena**



6. Urratsa. Laguntzaileak Gure Aita otoitzaren inguruan esan diren gauzetako batzuk bildu egingo ditu.



7. urratsa. Ahal izanez gero, musika gozoa jarriko dugu.

- Kandela piztu eta, pare bat minututan, isilik, beren otoitza egin dezatela, konta diezazkiotela Jainkoari eguneko gorabeherak, beldurrak, poztasunak, tristurak, eskariak...
- Saioari amaiera emateko, Gure Aita errezatuko dugu elkarrekin. Elkartean bezala, elkarri lagunduko diogu..., dakienak, errezatu egingo du, zati bat dakienak, zati hori errezatuko du, denok batera, aho batez, "Jainkoarekiko konexioan".

Laguntzaileak, egokitzen joz gero, otoitz sarbideari buruzko eranskina paper edo euskarri elektronikoan emango die familiei.

# I. ERANSKINA

AITAGUREA

Pasahitza



## II. ERANSKINA

### GURE AITA OTOITZA ELKARRIZKETA ERARA

*Lagun batek, eserita, OTOIZLARI (beharbada laguntzaileak irudika dezake ondoen egoera hori), Biblia edo otoitz-liburua eskuetan... hitz egiten du eta Jainkoak erantzun egiten dio (taldekideren batek irakur dezala JAINKOARI dagokiona).*

Otoizlaria: "Gure Aita zeruetan zarena".

Jainkoa: Bai?

Otoizlaria: Ez moztu, otoitz egiten dihardut.

Jainkoa: Baina, deitu egin nauzu, Mary.

Otoizlaria: Nik?, Zuri deitu? Ez zaitut deitu. Otoitz egiten dihardut. "Gure Aita..."

Jainkoa: Horra hor! Berriro egin duzu.

Otoizlaria: Egin, zer?

Jainkoa: Deitu. "Gure Aita..." esan duzu. Hemen nauzu. Zer darabilzu gogoan?

Otoizlaria: Bueno, ez dut ezer esan nahi izan hori esatean. Neure otoitzak esaten ari naiz, besterik ez. Beti esaten dut "Gure Aita". Ondo sentiarazten nau! Neure ardura betetzen dudala sentitzen dut.

Jainkoa: Ongi da. Jarraitu.

Otoizlaria: "Santu izan bedi zure izena".

Jainkoa: Itxaron. Zer esan nahi duzu horrekin?

Otoizlaria: Zerekin?

Jainkoa: "Santu izan bedi zure izena", delakoarekin.

Otoizlaria: Bueno... zer esan nahi du?... Ez dakit zer esan nahi duen. "Gure Aita" otoitzean esaten da! Zer esan nahi duen galdetzen duzu?

Jainkoa: Ba, zintzo, santu, bikain esan nahi du.

Otoizlaria: Bueno, inoiz ez dut zer esan nahi duen jakin. Baina zentzuzkoa da. "Etor bedi zure erreinua. Egin bedi zure nahia, Zeruan bezala lurrean ere".

Jainkoa: Benetan diozu, Mary?

Otoizlaria: Seguru... Zergatik ez?

Jainkoa: Eta zer egiten diharduzu horretarako?

Otoizlaria: Egin? Ezer... baina... Badakizu zer? Sekulakoa litzatekeela hemen behean, hor goian bezala, dena kontrolpean izango bazenu!

Jainkoa: Eta zeu ere, Mary, kontrolpean izango bazintut?

Otoizlaria: Bueno... Joaten naiz elizara.

Jainkoa: Ez dizut hori galdetu. Zer diozu zure txutxu-mutxuez eta aiurri txarraz? Benetan, arazoa duzu, badakizu? Eta zer esan dirua gastatzeko eraz, dena zeuretzat...

Otoizlaria: Utz nazazu bakean! Elizako hipokrita horietako edozein bezain ona naiz-eta...

Jainkoa: Barkatu, nire borondatea bete dadin errezatzen ari zinela uste nuen. Hori gerta dadin, otoitzean eskatzen dutenengandik, zeuregandik hasita, hasi behar duzu.

Otoizlaria: Ongi da. Aipatu duzunez, ohitura txar batzuk baditut... Aipa dezaket baten bat, ezta?

Jainkoa: Neuk ere bai.

Otoizlaria: Ongi da, aspaldi ez dut horretan pentsatu... baina gauza bat baino gehiago aldatu nahiko nuke. Pertsona ona izatea nahiko nuke.

Jainkoa: Primeran! Aurrera egiten ari gara. Elkarrekin jardungo dugu, badut irabaz dezakegun hainbat bataila. Harro nago zutaz, Mary!

Otoizlaria: Jauna! Buka dezakegu kontu hau? Normalean baino denbora gehiago kentzen ari zait...

Otoizlaria: "Emaiguzu gaur egun honetako ogia".

Jainkoa: Ogia murriztu behar duzu.

Otoizlaria: Zer... zer da hau? Kritikatu egiten nauzu? Hemen nago, betebeharrak erlijiosoak betez, otoitz eginez, eta gauza txarrak gogoratuz eteten nauzu?

Jainkoa: Otoitz egitea, arriskutsua da, aldatuta buka dezakezu. Horixe ulertarazi nahi dizut. Deitu egin nauzu eta hemen nago, berandu da gelditzeko. Jarraitu otoitzean, jakin-minez nago zure otoitzaren hurrengo atalaren zain.

Otoizlaria: Beldur naiz.

Jainkoa: Zeren beldur?

Otoizlaria: Esango didazuna entzuteko beldurrez.

Jainkoa: Saiatu eta ikusiko duzu.

Otoizlaria: "Barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero".

Jainkoa: Eta zer diozu Bethi buruz?

Otoizlaria: Banekien! Banekien Bethi buruz galdetuko zenidana! Pertsona horrek diruarekin iruzur egin zidala ulertu behar du. Zin dagizut, Jauna, mendeku hartuko diodala.

Jainkoa: Baina zure otoitza... Zer diozu zure otoitzaz?

Otoizlaria: Otoitza ez dut benetan esaten.

Jainkoa: Bueno, gutxienez zintzoa zara. Baina ez da ona barruan hainbesteko garrantasuna izatea, ezta?

Otoizlaria: Ez, baina hobeto sentituko naiz mendeku hartzen diodanean. Badut egitasmoren bat... Beth delako horrentzat...

Jainkoa: Ez zara hobeto sentituko, okerrago baizik... Mendekua ez da gozoa... Ikusi zein zorigaitzoko sentitzen zaren orain. Baina Neuk alda dezaket hori.

Otoizlaria: Ahal duzu?

Jainkoa: Bai.

Otoizlaria: Nola?

Jainkoa: Mary, hemendik aurrera hitz egingo dugu benetan...

Jainkoa: Barkatu Bethi eta Neuk ere barkatuko zaitut. Eta gorroto eta bekatua Bethen arazo izango dira eta ez zure arazo. Dirua galduko duzu baina, trukean, bihotza sendotu.

Otoizlaria: Ezin dut, Jauna, ezin dut... barkatu.

Jainkoa: Orduan, ezin zaitut barkatu...

Otoizlaria: Ongi da. Bethi mendeku hartu nahi badiot ere, ez dut Zurekin haserrerik nahi, Jauna. Barkatzen diot Bethi, benetan, barkatzen diot Bethi. Emaiozu laguntza, bide zuzena aurki dezan, Jauna... Berarengan pentsatzen dut... zoritzarreko sentituko da... Lagun iezaiozu bizitzan Zurekin batera egiteko bidea aurkitzen.

Jainkoa: Ongi. Nola sentitzen zara?

Otoizlaria: Gaizki ez, ezta gutxiago ere... Izan ere, oso ondo sentitzen naiz...

Jainkoa: Ongi! Ez duzu amaitu, jarraitu...

Otoizlaria: "Ez iezaguzu utzi tentazioan jausten, eta atera gaitzazu gaitzetik".

Jainkoa: Ongi, egingo dut. Baina ez zaitetz egon tenta zaitzaketen lekuetan...

Otoizlaria: Zer esan nahi duzu horrekin?

Jainkoa: Ez egon okerreko lekuetan; ez egin kalte egiten dizun gauzarik; ez entzun hizketaldi kaltegarriak; aldatu adiskidetasun batzuk; ez diezazutela iruzur egin... Beraiek dibertsioa eskaintzen dute baina zuretzat hondamendia izango da... Ez nazazu ihesbidetzat har...

Otoizlaria: Baina... ez dut zati hori ulertzen.

Jainkoa: Bai, ulertzen duzu, hainbat aldiz egin izan duzu... Egoera txarrean zaudenean, arazoak dituzunean, lasterka jotzen duzu Niregana: "Jauna, atera nazazu honetatik eta gehiago ez dudala egingo agintzen dizut". Gogoan duzu Nirekin egin nahi izan duzun horrelako negoziaketaren bat...?

Otoizlaria: Bai, Jauna, gogoratzen dut. Eta lotsatuta nago: Begira, orain arte, "Gure Aita" esan eta nahi nuen bezala bizitzen jarraitzea nahikoa zela uste izan dut. Ez nuen uste hau gerta zitekeenik, Jauna.

Jainkoa: Jarraitu, amaitu zure otoitza.

Otoizlaria: "Zeurea da-eta erregetza, ospe eta aintza, gizaldi eta gizaldietan. Amen".

Jainkoa: Badakizu zerk dakarkidan aintza, zer litzatekeen nire zorion-iturri?

Otoizlaria: Jakin nahi dut, Jauna! Benetan, jakin nahi dut! Jauna, uste dut oraintxe hasi naizela zure jarraitzaile izateak zer esan nahi duen ulertzen. Bene-benetan, zure atzetik jarraitu. Maite zaitut, Jauna.

Jainkoa: Nire galderari erantzun diozu.

Otoizlaria: Benetan?

Jainkoa: Bai. Zuk bezalako pertsonak Ni benetan maitatzea da nire aintza eta hori gure artean gertatzen ari dela ikusten dut. Hainbat bekatu kanpoan geratu da eta hartu-emanen gaude, horregatik, urrun iritsiko gara elkarrekin.

Otoizlaria: Jauna, posible ote da beste egun batean ere orain bezala elkarrekin solasean jardutea?

Jainkoa: Bai, Mary. Aurrerantzean, benetan hizketan jardungo dugu.